

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/5/7 | 323

- Euskararen diagnostikoa Adunako enpreetan
- Berdintasunaren aldeko astea
- Ezkutuko gantz hori
- GKO gallery bertako artistei tokia egiten
- Euskal Herriko Duetloi txapelketa Hernialdera
- Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...



Zein da eskualdeko  
sektore industrialaren  
etorkizuna?

# ATE IREKIAK

etorri aurretik izena eman!

902 110 436

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



PREST



MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

Goi Eskola Politeknikoa

**ARRASATE** 2. zikloa

MAIATZAK 20 osteguna - 17:30

Enpresagintza Fakultatea

**OÑATI**

MAIATZAK 13 osteguna - 18:00

**IRUN**

MAIATZAK 20 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

**ESKORIAITZA**

MAIATZAK 8 larunbata - 11:00

areto nagusian

## NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZBK 587



AMAIA ETXETXIA  
BIOLOGA

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

ARIKETA FISIKOA

HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,  
5 B - 2ª ESKUBIA  
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO  
HITZORDUA  
679 934 888

Barceló

Costa  
Vasca



### Utzi zure ezkontza gure esku!

400 gonbidatuentzako eserlekuak eta erosotasun guztiak zure ezkontza ospatzeko!!

Gainera ezkonberriek hurrengo abantailak izando dituzte:

- Ezkon-suite-a Barcelo Costa Vasca Hotelean, gosari, Ur zirkuitu eta aurpegi tratamendua barne Wellness & Fitness Zentruan.
- Ezti-bidaia Barcelo-k penintsulan dauzkan hoteletako batean.
- %-eko 25eko deskontua Ezkon oparietan eta harrera pertsonalizatua...zuk amestutako ezkontza izan dadin!!

Restaurante Ulía  
Hotel Barceló Costa Vasca  
Avenida Pío Baroja, 15  
20008 Donostia, San Sebastián

Tel. 943 31 79 50  
Fax. 943 21 24 28  
[www.barcelo.com](http://www.barcelo.com)  
[costavasca.incentives@barcelo.com](mailto:costavasca.incentives@barcelo.com)



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,  
 6-behea.  
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
 Telefonoa: 943 655 004  
 Faxe: 943 654 983  
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
 Webgunea: www.galtzaundi.com  
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.  
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,  
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague  
 Banatzaileak: Olatz Garmendia  
 Juankar Arregi  
 Idazkaria: Edurne Mendia  
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.  
 Diseinua: Zigor Agirrezabala  
 GOITIK  
 Azala: Galtzaundi  
 Inprimategia: Antza.  
 Tirada: 5.000 ale  
 Lege gordailua: 55-906/91  
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
 Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA  
 Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza  
 diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia:

Tolosaldeko sektore industrialari irtenbidea eman beharra

Martxoan 2.651 langabetu zeuden Tolosaldean, 2008ko urtarrilan 1.587; beraz, 1.064 langabetu gehiago daude eskualdean. 2008ko udaran hasi zen Tolosaldean krisi ekonomikoaren eragina somatzen. Ordutik hona, langabezia %58 igo da. Datu lazarri hauen arrazoi bakarra al da krisi ekonomikoa? Tolosaldeko industria egitura sendo al dago? Papergintza al da oraindik gure sektore estrategikoa? Zein etorkizun du eskualdeko sare industrialak? Edo zein norabide hartu behar du?

8-13. orrialdeak

Tolosaldea egin dugun prozesuaren adibide garbia da. Orain dela 25 bat urte bazen bertso eskola Tolosan, baina geratu zenetik urte luzetan ez da ezer egon. Hezkuntza arautuaren proiektuarekin hasi ginenean Tolosa proiektuan sartu zen.

Elkarrizketa: Felix Irazustabarrena

16-18. orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Elixabet Eizagirre eta Ibon Artola	4-5
	Normalizazioa: Euskararen diagnostikoa Adunako enpresetan	6-7
	Eskualdeko albisteak: Berdintasunaren aldeko lehenengo astea	14-15
	Koxk: Ezkutuko gantz hori	19
	Kultura: GKO gallery Tolosako artistei lekua egiten	20-21
	Kirol saltsa: Itxaso Leunda, Euskal Herriko duatloi txapeldun argia	22-23

## Lotsaren harresiaren aurrean



Elixabet Eizagirre  
Tolosaldea Sahararekin elkarteko kidea

4 Beste urte betez 1000 pertsona baino gehiago lotsaren harresiaren aurrean elkartu gara. Hirugarren urtea da Fronte Polisarioak plataforma baten laguntzarekin harresiaren aurrean 1000 lagun baino gehiago biltzeko helburua finkatzen duela. Aurreko urteetan bezala, aurtengoan ere errez bete dute euren helburua.

Gaur apirilak 2 da, goizeko 5ak dira eta errefuxiatu kanpamentuetako udaletxeetan biltzen hasiak gara manifestazio honekin bat egin nahi dugunok.

Piskanaka kotxe eta kamioietara igo eta lau orduko biderei hasiera emango diogu.

Bidean izan garen lau ordu horietan geldialdi ezberdinak egin ditugu, hauen helburua garraio guztiak batera joatea izan da.

Nahiz eta manifestazioa harresiaren aurrean izan, bidean zehar garraio ezberdinak gurutzatu eta bat

egiten genuen bakoitzean, agurrak, oihuak, garrasiak, leloak, abestiak... ugariak izan dira. Guztiak saharar herriaren askatasunaren aldekoak noski.

Bide luzearen bukaeran, lotsaren harresia. Pixkanaka garraioetan etorri garen guztiok biltzen hasi gara, harresiarekiko paraleloan giza harresi bat egiteko.

Aurtengoan 1400 pertsona bildu gara. Ordu betez gutxi gora behera mota ezberdinetako leloak, oihuak, esaldiak, kantuak... izan dira lagungai.

Orain dela 30 urte eraiki

zuten harresiaren aurrean gaude, Mendebaldeko Sahara bi zatitan banatzen duen harresiaren aurrean, saharar familia ugari banatzen dituen harresiaren aurrean.

Guk zati bat besterik ez dugu ikusten, baina honek 2740 kilometro ditu eta Txinako harresiaren ondotik gizakiak eraiki duen eraikinerik luzeena da. Bere helburua sahararrak euren lurra ez bueltatzea da.

Kilometro guzti horietan 4-5 kilometroko tartearekin soldadu marokiarrak daude, 180.000 hain zuzen ere. 15 kilometroro radar bat dago. Bunkerrez, hesiz eta leherkariz beteriko gune militarra da hau.

1976ean Espainiak sahararrak saldu eta alde batera utzi zituztenean, gerratea ireki zen Fronte Polisario eta marokoar soldaduen artean. Marokoar soldaduak saharar biztanleria napalm eta fosforo txuriaz erasotu, eta hauek ihesean Arjeliak utzitako lur eremuan errefuxiatu ondoren, saharar soldaduak oztopo handi honekin topo egin zuten. Nahiz eta 1991tik su etenean egon, saharar soldaduak ez daude geldirik, harresia zentimetrotik zentimetroa ezagutzen dute. Soldaduak urte guztian zehar aktiboki prestatzen baitira.

Soldaduetatik haratago, harresiaren alde batean egunero giza eskubideak

bortxatzen dira eta beste aldean berriz 200.000 pertsonak oinarritzko beharrak asetzeko ezintasuna dute.

Eta guzti honen aurrean zer egiten dute inguruko lurraldeek edota Nazio Batuek? Ez al dute orain dela 30 urte eraiki zen mamu honen berri? Ez al dakite harresia luzatzen den gune osoan zehar 500 metroko zabalerarekin dauden pertsonen kontrako leherkariek eztanda egiten jarraitzen dutela? Nork eta zer irabazten dute, lotsaren harresia bertan mantentzeko egiten den esfortzu eta gastu ekonomiko guztiak babesteko?

Ez al dira nahiko 35 urte bakoitzak bere erantzukizunei aurre egiten asteko? Saharar herriak euren lurraldera bueltatzeko eskubidea du, euren lurraldean aske eta independente bizitzeko eskubidea du, errefuxiatu eremuetan eraiki duten gizartea euren lurraldean eraikitzeko eskubidea du.

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin maiztan zehar ekintza ezberdinak antolatu ditu saharar herriak pairatzen duen egoera ezagutarazteko. Hauek maiztak 10etik aurrera izango dira, interesa duzuen guztiok bertan ikusiko garelakoan,

Maroko mendebaldeko saharatik at, autodeterminazioa eta independentzia mendebaldeko sahararentzat

## 1886ko maiatzak 1: langile egunaren jatorria

Erakunde honen deialdiaren helburua, 8 orduko lan egunaren aldeko borrokan, sindikatuen ekintzarako erreferentzia bat ezartzea zen. Agintari sindikal askok ez zuten begi honez ikusi, baina langile klasearen giro sozial lehergarriaren aurrean ezin izan zuten beste alde batera begiratu. Maiatzaren 1a borrokarako erreferentzia puntu bihurtu zen langileentzat, baita sindikatuetan antolatu gabe zeudenentzat ere, eta egoera hori erabili zen borroka ezberdinak bateratzeko. Batez ere, oso garrantzitsu izan zen antolakuntzarik ez zuten langileentzat, oso aukera gutxi baitzuten bestela borroka antolatzen.

Laneko Zaldunak deitutako erakundeak berriz uko egin zion maiatzaren 1ean parte hartzeari justifikazio erabat okerra emanez. Baina langileek ez zuten galdu mobilizazio eraginkorretan parte hartzeko aukera. New York, Boston edo Chicago bezalako hiri garrantzitsuetan ehunka milaka pertsonako mobilizazio indartsuak antolatzen hasi ziren maiatzaren 1a gerturatu ari zen heinean. Egoera horren aurrean, enpresariak beldurtuta jarri ziren eta hainbat modutara erreakzionatu zuten. Kasu batzuetan, maiatzaren 1a baino lehenago, 8 orduko lan eguna ezarri zuten eta beste kasu batzuetan manifestarietara indarrez aurre egiteko presaturatu ziren. Urte horretan bertan, 350 mila langile iparramerikarrek 8 orduko lan eguna lortu zuten. Langile klasearen mobilizazioen eta greben arrakastak oihartzun internazionala izan zuten.

Burgesiak amore eman behar

izan zuten beste aukerarik geratu ez zitzaion lekuetan eta beren interesentzat langileak hartzen ari ziren protagonismo arriskuetsuaren aurrean, konspiratzaile komunistez, anarkistez... hitz egiten hasi ziren, langileek boterea hartzeko asmoa zutela gogor salatuz.

Hainbat lekutan, polizia kontzentrazio "susmagarriak" sakabanatzeko baimena lortu zuten, eta kasu askotan, langileek aurre egin zieten maila guztietako enfrentamendu gogorrek emanaz. Egoera honi gehitzen zitzaizkion sor zitezkeen borroka oztapatzeko enpresarien maniobra. Maiatzaren 1eko borroka saihestea ezinezko egin zitzaizenez, honek zuten ezaugarri orokortuaren ondorioz, beren indarrak bildu zituzten tokiko borrokan txikiagoen aurka. Langileei kapitalismoaren legeen nagusitasuna erakustea zen honen helburu nagusia. Horrela beraz, polizia mobilizatzen ziren langileak erailtzen hasi zen.

Maiatzaren 4ean, Chicagoko Haymarket plazan protesta bat antolatu zen aurreko eguneko polizia erail zituen 6 langileen alde. Ekintza polizial baten aitzakiak saihesteko helburuarekin kontzentrazioaren baimena lortu zuten. 3 mila langile inguru bildu ziren eta diskurtsoak entzun zituzten modu baketsuan. Mitina bukatu eta langileak sakabanatzen hasi zirenean polizia hauek erasotzen hasi zen. Probokazio hau lehergailu batekin zetorren, polizia bat hil eta hainbat zauritu eragin zituen. Ezinezkoa zen guztiz mobilizazioa antolatu



Ibon Artola

Euskal Herria Sozialista-ko kidea

1884ko urriaren 7an (eman badezake ere ez dago okerrik datan), Federation of organized Trades and Labor of the United States and Canada langile erakundeak mozio garrantzitsu bat onartu zuen honako hau zioena: 1886ko maiatzaren 1etik aurrera 8 orduko lan eguna ezarriko da.

zuten erakundeak ezta daren arduradunak izatea. Polizia tiroak botatzen hasi zen modu indiskriminatuan eta hainbat langile erail zituzten.

Egun honen ondoren polizia-aren atxilotak hasi ziren. Ezta daren arduradunak aurkitzeko prozedura "zientifikoa" hiriko agintari anarkista nagusien zerrenda aurkitzea izan zen. Horrela, polizia-aren heriotzagatik Auguste Spies, Samuel Bielden, Michael Schawab, Georges Angel, Adolph Fischer, Louis Ling, Oscar Neebe eta Albert Parsons atxilotu eta heriotzara kondenatu zituzten. Jende honen oinarriko ezaugarria langile klase iparramerikararen abangoardia izatea zen eta hori zen burgesiari axola

zitzaiona. Urriaren 9rako eman zen epai kondenatzailea. Hala ere, Ling eraila izan zen exekuzio eguna baino egun bat lehenago. Azaroaren 11ean Spies, Fischer, Angel eta Parsons urkatu egin zituzten. Neebe 15 urterako eta Bielden eta Schawab bizi osorako zigorrera kondenatuak izan ziren.

Gaur egun ere, kapitalistek ez dute dudarik izango beren erasoetara aurre egin nahi dieten langileak erreprimitzeko, eta behar izanez gero modurik gogorretan 1976ko Gasteizko martxoaren 3an bezala. Horregatik, beharrezkoa da langile mugimenduaren batasuna eta antolakuntza, baina ez hitzez soilik, eguneroko praktikan baizik.

# “Aberasgarria izan da euskarak Adunako enpresetan **b**izi duen egoeraren berri jasotzea”

Adunako udala eta Galtzaundik sinatutako hitzarmenaren bidez, Adunako enpresetan euskarak duen presentziaren diagnostikoa egin da. Galtzaundiko teknikariak martxoan egin zituen azken bisitak eta diagnostikoa Adunako Udalaren eskuetan dago jada. Arantxa Aburuza Adunako alkateari emaitzen balorazioa eskatu diogu.

## Zergatik erabaki zenuten enpresen munduan eragitea?

Herria bera oso euskalduna izan arren, enpresa-munduan gaztelania oso zabaldua zegoelako. Horregatik, oso garrantzitsua iruditu zitzaigun arlo horretan eragitea, herriaren irudian eragin handia duelako enpresetan gaztelania hainbeste erabiltzeak.

## Zer-nola ekiten dio Aduna bezalako udal txiki batek tamaina honetako egitasmo bati?

Lehen-lehenik, enpresa-munduan zerbait egin behar genuela erabaki genuen Udaletik, eta UEMAko teknikariarekin harremanetan jarri ginen, zer egin genezakeen aztertzeko. Ondoren, arlo horretan lan egiten zuten enpresa batzuekin bilerak egin genituen: Elhuyar, Galtzaundi... Azkenik, enpresa horien eskaintzak aztertu

ondoren, Galtzaundiren bidez diagnostikoa egitea erabaki genuen, egoeraren berri izateko.

## Zergatik erabaki zenuten Galtzaundirekin hitzarmena sinatzea eta beste aukera batzuk baztertzea?

Estreinakoz hastekotan ginen lan-munduan eragiten, eta, horregatik, oso garrantzitsua iruditu zitzaigun egoeraren berri jasotzea, aurrera begira zer urrats egin jakiteko. Galtzaundik enpresen egoera aztertzeko proposamena egin zigun, eta oso egokia iruditu zitzaigun, aurrera begira zer neurri hartu erabakitzekeo abiapuntu bat izateko.

## Egitasmoaren hastapenetik Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea bidelagun izan duzue. Zer nolako ekarpena egin dio UEMAk egitasmoari?


UEMAk laguntza handia eman digu lanketa horretan. Hasiera batean, berak aholkatu zigun zer urrats egin behar genituen. Ondoren, gai horretan jarduten zuten enpresen izenak pasatu zizkigun, eta bileretan gurekin egon zen bere iritzia ere emateko. Azkenik, diagnostikoa egiteko prozesuan

Galtzaundiko teknikariari laguntzen aritu da uneoro, eta aurrera begira nola jokatu erabakitzekeo garaian ere gertutik laguntzen ari zaigu.

## Zein da udalak egitasmoaz egiten duen balorazio orokorra? Zer nabarmenduko zenuke bildutako datuetatik, onean eta txarrean?

Oro har, oso aberasgarria iruditu zaigu egoeraren berri jasotzea, orain arte zantzuak baino ez baikenituen. Onean, oso gustura gelditu gara enpresa batzuen egoerarekin, jarrera eredugarria dutela konturatu baikara. Txarrean, berriz, ez zaigu askorik gustatu enpresa batzuen jarrera, batzuek ez baitute bisitarik egiteko aukerarik eman eta beste batzuek ez baitute jarrera aldatzeko inolako interesik erakutsi.

## Etorkizunera begira, zer egiteko asmoa duzue?


Oraindik ez dugu erabat zahastu zer neurri hartuko ditugun. Gutunak bidaltzeko asmoa dugu diagnostikoan parte hartu duten enpresa guztiei, eta, hortik aurrera, neurriak hartu nahi dituztenei laguntzeko zer egin erabaki beharko dugu. Argi dago lehen urratsa izan dela eta jarraipena izango duela. 

## Maiatzak 15 Denok Iruñeara "euskaraz bizitzeko eskubidea" errebindikatzera

Kontseiluak deituta, maiatzaren 15ean manifestazioa egingo da Iruñean arratsaldeko 18:00etan Golem zinemetatik abiatuta. Nafarroako euskalgintzako eragile guztiek bat egin dute "euskaraz bizitzeko eskubidea" elkarretaratzearen lemarekin. Nafarroan euskalgintzan aritzen diren eragileek Nafarroako Gobernuak alor horretan egiten duen politika salatu dute. Topaguneko Nafarroako ordezkariak, Oskar Zapatak adierazi duenez "itolarri" egoera nahita eragiten ari dira. Egoera larria da, eta euskararen aurkako sokaren azken biktima Nabarra aldez-karia dugu. Aldizkariak ezin izan du aurrera egin eta mantxeta Bilboko enpresa bati

saldu behar izan dio. Egoera islatzen duten adibide gehiago ere badira ordea.

Dagoeneko 1.600 eragile eta pertsona ezagunen atxikimenduak bildu dituzte manifestaziorako deialdia egiteko. Galtzaundi euskara taldeak manifestaldira deitu nahi ditu Tolosaldeko euskaltzaleak. Iruñeara joateko autobusa antolatu du. Izen ematea zabalik dago. Horretarako Galtzaundiko egoitzatik (Nafarroa etorbidea, 6 behea) pasa beharko da. Autobusa 16:00etan irtengo da Tolosako tren geltokitik, eta itzuli manifestazioa amaitzean itzuliko da. Prezioa 12 eurokoa izango da bazkide ez direnentzat eta 10 eurokoa bazkideentzat.



## Kultur ekitaldiak



**Maiatzak 13**  
Ipuin kontalaria  
Idoia Sanchez  
Alegiako Liburutegian  
18.00etan

**Uztailaren 24**  
arte  
Irakurri gozatu eta  
oparitu



**Ludotekarako begiraleak  
behar dira**

Galtzaundik uztailaren 1etik 30era antolatuko duen Ludotekan lanean aritzeko begiraleak behar ditu. Bidali zuen Curriculumak Nafarroa etorbidea 6 behea (Tolosa) helbidera.

Baserriko produktu naturalak  
Mahala baserria • LEABURU  
Tel.: 943 673 499

Osagaiak  
Desarrolloak  
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199  
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

**INDUSTRIARAKO  
HONIDURAK**

Iparragirre auzoa, 1-behea  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462

Mertzzeria eta  
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7  
TOLOSA

Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

# ANTZA

Eskualdea "basamortu" industrialia bilakatzea ez badugu nahi, eskualdeko industria bideratzeko plan estrategikoaren beharra azpimarratu dute

# Tolosaldeko sektore industrialari irtenbidea bilatzeko beharra



Martxoan 2.651 langabetu zeuden Tolosaldean, 2008ko urtarrian 1.587; beraz, 1.064 langabetu gehiago daude eskualdean. 2008ko udaran hasi zen Tolosaldean krisi ekonomikoaren eragina somatzen. Orduetik hona, langabezia %58 igo da. Datu lazgarri hauen arrazoi bakarra al da krisi ekonomikoa? Tolosaldeko industria egitura sendo al dago? Papergintza al da oraindik gure sektore estrategikoa? Zein etorkizun du eskualdeko sare industrialak? Edo zein norabide hartu behar du? Galdera guzti horiek jarri ditugu mahai gainean, eta erantzun baten bila LAB sindikatuko Tolosaldeko arduradun Mari Mujika, ELA sindikatuko Tolosaldeko ordezkaria Egoitz Iturbe eta Tolosalde Garatzen Garapen Agentziako kudeatzaile Joxe Luis Urdangarin gonbidatu ditugu mahaiaren bueltara.


**Krisia Tolosaldean: Nola eragin du? Beste eskualdeetan baino eragin handiagoa izan du gu-rean?**

**ELA:** Eskualde bat bestearekin konparatzea ez zait egoki iruditzen. Gure eskualdean gertatzen dena azaltzera mugatuko naiz. 2009ko urtarri-lean, Gipuzkoa osoan 33.000 langabetu zeuden, gaur egun 41.000 langile daude. Diferentzia 8.600ekoa da. Eskualdean berriz duela urte t' erdi baino 1.596 langabetu gehiago daude. Horrek esan nahi du, hama-bost hilabete hauetan eskualdeko langabetuen portzentaia %18,54 igo dela. Datuok oso kezkarriak dira, batez ere ikusirik administrazioak eta patro-lanak zein prespektibarekin jokatzen duten. Egiten dituzten politikak ez dute laguntzen egoera prespektiba polit bate-tik ikusteko.

**TOLOSALDEA GARATZEN:** Egoera oso larria da eta oso agerikoa da hori. Egoitzek datu batzuk eman ditu; nik harago joan nahi nuke. Konparaketa egoki bat egiteko, 2008ko udar-tik orain arteko eboluzioari begiratu behar zaio, eskualde honetan krisiaren eragina 2008ko udan hasi baikinen somatzen. Eskualdean %58 igo da langabezia 2008ko urritik 2010eko martxora arte. Hori ikaragarria da. Datu objektibo bat da hori, baina datu finko bat da; erlatibizatu egin behar dugu, eta beste eskualdetako datuekin konparatu; ez gure

burua larritzeko edo kontso-latzeko, baizik eta jakiteko gure kasuistika Euskal Herriko bera den edo beste kasuistika batean gauden. Gipuzkoako hamaika eskualden artean erdibidean gaude: langabeziaren igoera handiena Urola Garaian izan da, %106ko igoerarekin; Urola Erdian %90 igo da; Goie-rrin %86; Urola Kostan % 76; Debabarrenan %62; Tolosaldean %58 eta Donostialdea -Bidasoaldean igo da gutxien. Diagnostikoa egiterakoan bi faktore hartu behar dira kon-tutan: faktore exogenoak, merkatu globaletik datozenak eta saihestu ezin ditugunak; eta faktore endogenoak: gure enpresa sarearen konfigurazioa, zein sektoretan dauden, lehiakorrak diren edo ez... Hor bai daukagula guk zeresana. Neurriak hartu behar ditugu hurrengo krisia etortzerako.

**LAB:** 2008ko urtarri-lean 1.587 langabetu zeuden To-losako INEMen izena eman-da; 2010eko martxoan berriz, 2.651. Denbora tarte horretan %63 igo da langabezia tasa. Datu eskandalagarriak dira. Errealitatea da, azkeneko urte t' erdi honetan eskualdeko en-presa nagusi gehienetan ERE egoeran egon direla, azken hi-labeteetan enpresa batzuk itxi egin direla, eta beste batzuk oso egoera larrian daudela. Horren eragileak Jose Luisek aipatu dituenak izan daitezke. Hala ere, momentu honetan Tolosaldean daukagun indus-

  
“Eseri egin behar dugu, eta eztabaidatu zein den Tolosaldearen egoera eta zein den aurrera begira egiten dugun apus-tua”.

**Mari Mujika, LAB**



tria motarengatik kezka gutxi ikusten dut nik. Bestalde, kon-tuan edukitzen badugu duela 15 urte Tolosaldeak zuen egi-tura industrial, konturatuko gara 250 langile baino gehia-goko enpresa dexente zeudela eskualdean; 12 edo 13 ziren. Momentu honetan, Tolosaldean dagoen enpresarik han-diena Tolosako Udala da, eta horrek ematen digu adibide garbi bat Tolosaldearen apustu industrial nondik nora doan ikusteko. Horrekin batera, ai-patu behar dugu bere garaian 300 langile zituzten enpresak egun itxita daudela edo planti-la jaitsiera izugarria izan dutela; hala nola, Sacem, Binkler, Ace-ros Irura, Basagoitia... Egoera hau da, eta azken urteetan ez dugu Tolosaldeako industria-ren etorkizuna bideratzeko kezkarik somatu. Honek jarre-ra garbi ba azaltzea eskatzen du, administrazio, enpresa, sindikatu eta eragile sozialen aldetik. Ez badugu ezer egiten, Tolosaldea basamortu indus-triala izango da. Eta hala ere, zoru industrial berriak egitea pentsatzen ari dira. Zertarako?



Nor etorriko da hona? Apatxa Errekarekin gertatu zena adibide garbi bat da. Izugarria izan behar zuen hasiera batean, eta orain, industriaguneko hiru enpresarik handienak kinka larrian daude: Gorostidi hilzorian dago; Voith EREan egon da eta Obeki oso egoera larrian dago. Esan diezagutela zein den Tolosaldearen etorkizuna!

**Zein da ba Tolosaldeko industriaren etorkizuna? LABek egin duen aurreikuspen beltzarekin bat egiten duzue?**

**ELA:** Honi erantzun baino lehen krisi honek langileengan izan duen eragina argitzea gus-tatuko litzaidake. Gure ustez, zeuden langile ebentual guz-tiak etxean daude orain. Enpre-sa buruei ebentual hauek mer-ke edo dohainik atera zaizkie. Krisiaren aitzakian, helburua langileek genituen eskubide guztiak murriztea da. Horren adibide garbiak baditugu gaur egun negoziatzen ari diren konbenioetan. Patronala berriz oso tinko eta babestua dago negoziazio hauen aurrean, eta administrazioak patronalak esaten duen guztia betetzen du: metalgintzan 23 artikulua ezabatu nahi dituzte, sektore grafikoan beste horrenbeste eta eraikuntzan konbenioa ez da aplikatzen. Bien bitartean, estatu espainiarrak langileok bizi dugun egoera larri hau baliatzen du negoziazio kolektiboaren erreformak bultzatzeko. Ultra-aktibitatea ekarri

nahi dute Euskal Herrira, honek konbenio guztiak urtetik-urtera negoziatzea ekarriko lukeerarik; lan erreforma egin nahi dute despidoa merketzeko; pentsio erreformak... Patronalarentzat aukera bat da krisia, matxakatu egin nahi gaituzte, eta administrazioak ez du ezer egiten hori ekiditeko. Hori guztia honela izanda, eskualdean zer? Eskualdean egoera ez da hobea izango.

**Zein izan daiteke egoerari buelta emateko bidea?**

**T.G.:** Tolosaldea Garatzen garapen agentzia bat da. Duela hamabost urte sortu zuten krisiaren aurrean enplegu politika aktiboa sustatzeko. Baldintza horietan ekin genion lanari, eta lan ildo finko batzuk hartu zituen: enplegu zerbitzua daukagu eta Lanbideko zentru kolaboratzailea gara. Bete-betean somatzen ari gara 2008tik hona ekonomiak eduki duen bilakara. Iaz esaterako 2.000 pertsona pasa ziren gure zerbitzutik. Hauen artean banatu genituen zeuden lan eskaintza apurrak, eta gabe geratu zirenak formazioara bideratu genituen. Bestalde, enpresa mailan ere

lan egiten dugu, enplegatuek kalitateko lana izatea nahi badugu, enplegatzaileen artean ere eskua sartu beharra baitago. Hori bai, gure eskumen eta baliabideen barruan. Tolosaldea Garatzen kontziente da lan hori epe luzeko lana dela. Ez daukagu flotagailurik itotzen ari direnak salbatzeko, horrek ez baitu balio. Baina kontziente gara, hurrengo krisialdian gaur adina sufritzea nahi ez badugu orain egin behar dugula lan. Marik esan du lehen eskualdean bazirela enpresa handiak eta orain ez dagoela bat bera ere. Ni ez naiz eskualde honetako, baina nire eskualdean ere bizi izan dugu hori, eta hemen baino danbateko handiagoa suposatu zuen. Hori egia da, eta hortik ikasi egin beharko genuke denok. Nire gonbidapena da, aurrera begira jarri eta neurriak hartzen hastea. Esaten dugunean eskualdean enpresa guztiak txikiak direla egia esaten ari gara; baina esaten dugunean eskualdean ez dugula traxiorik, gezurra esaten ari gara. 10km-ko erradioan badago traxioa Goierri adina edo gehiago eragiten duen enpresa bat: CAF Eta hau be-

zala, badira aeronautikan edo energia berriztagarrien sektorean gure eskualdean trakzioa eragiten duten enpresak 100 km-ko erradioan. Horregatik, analisia ez da eskualdera mugatu behar.


Lurzoru industrialia? Gaur egun zertarako? Alferrikakoa litzateke, eta zentzu horretan arrazoa ematen diot Mariri. Baina kontutan hartu behar da lurzorua ez dela egun batetik bestera sortzen. Guk nahi badugu hemendik 10 urtera enpresa handi bat erakarri, orain hasi behar dugu lurzorua prestatzen. Gertatu izan da enpresa handi bati ezetz esatea lurzorurik ez dagoelako. Lurzoruaren kudeaketa antiziklikoa da, ez du momentuko egoerak balio.

**LAB:** Apatta Errekaren erabilera enpresen berkokapen hutsa izan da, gainera pelotazo ikaragarria egon da tartean eta ez da lanposturik sortu. Zoritzarrez, Apattako enpresa batzuk ixten ari dira. Gerta liteke hemendik bi urtera lurzoru industrialaren beharra izatea. Baina aurretik eseri egin behar dugu, eta eztabaidatu zein den Tolosaldearen egoera eta zein den aurrera begira egiten dugun apustua. Guzti hortaz hitz egin behar da, baina alderdi politikoak mutu eta gor daude. Badirudi, Tolosaldean axola duen bakarra bisiguaren eta txuleta festa edo presa puzgarria dela. Hori dena oso ondo dago, baina zenbat enplegu sortzen dira hortik? Dauden plangintza guztiak merkataritzari begira eginak daude. Tolosaldeak merkataritzatik bizi behar al du baka-

rrik? Hala bada, horri begira lanean hasi beharko genuke. 20 urte daramatzagu galdera horiek egiten, baina erantzunik ez dugu jasotzen. Zerbait planteatu beharko diogu Tolosaldeari!

**ELA:** Tolosaldean gertatzen ari dena ez da salbuespena. Gasteizen, Deban, Sakanan adibide berdinak ikus ditzakegu. Guk enplegua sortu nahi dugu, eta enplegua lortzeko prespektiba batzuk landu behar dira. Nik uste dut, administrazioak diru-laguntza handiak eta babesa ematen diela enpresariei inongo bermerik gabe. Hori gertatu da Altsasuko Gamesan, eta hori gertatzen ari da leku askotan ere. Gaur egun administrazioa eta patronala bat dira, eta hori kaltea da herriarentzat. Administrazioak zer egin dezake? Baditu diru sarrera eta irteera batzuk: sarrerak zergak dira; langileok gero eta zerga handiagoak ordaintzen ditugu, baina sozietateen gaineko zerga baxutu egin da. Irteeren kasuan, administrazioak esan du gastu sozialak murriztu egin behar dituela. Horrek zer eragin du? Gastu soziala murriztean, kontsumoa murrizten da eta horrek lana gutxitzen du. Non dago arazoa? Nire ustez, gure gaurko politikak ez du ikusten jendearen egoera konkretua, gutxi batzuen interes ekonomikoa baizik. Hori Tolosaldean eta Tolosaldekanpo egiten da.

**T.G.:** Gaur egungo krisialdi honi erantzuteko gure kasuan egin dezakegun ekarpen printzipala enplegu sailetik egiten dugun hori dela uste dut.



“Patronalarentzat aukera bat da krisia, matxakatu egin nahi gaituzte, eta administrazioak ez du ezer egiten hori ekiditeko”.

Egoitz Iturbe, ELA



Momentu honetan langabezia geratu diren langile asko langile finkoak izan dira, bizi guztian lanpostu berdinean egon direnak. Egoera normal batean, 1.500 pertsona inguru etortzen dira gugana, eta hauentzat 300 lanpostu egoten dira. Iaz 2.000 pertsona etorri ziren eta 70 lan eskaintza zeuden. Horren aurrean erreakzio bat behar dugu, ezin dugu jendea etxera bidali. Presio bat egitea dagokigu eta Euskadiko Garapen Agentzi guztiak presioa egiten ari gara Egoitzek aipatzen duen administrazio publikoan, gutxienez formazio eskaintza zabaldu dadin. Ez da logikoa gaur egungo formazio eskaintza iazkoaren berdina izatea. Eta administrazio publikoak lan postuak sortzea oso zaila da, ez baditugu funtzionario gehiago eta Udaletxe handiagoak nahi behintzat. Emergentziako egoera honetan egitea tokatzen zaiguna, langabetuak formatzea da.

**LAB:** Lehen Tolosaldeak indarra zuen papergintza sektorea sendo zegoela eta. Sektorearen oraingo egoera ordea guztiz ezberdina da. Agian papergintzaren aroa amaitu da, baina esan beharko dugu biharko Tolosaldeak norantz

joan behar duen. Hor eskatzen dugu administrazioaren inplikazioa. Administrazioak garatu beharko du Tolosaldeko sektore industrialaren plan estrategikoa.

### Ze sektore erakarri behar da Tolosaldera?


**T.G.:** Marik papergintzaz hitz egin du. Papera ekoizten duen sektore bezala hartuta, papergintzak pisu handia izan du eta du eskualdean. Egungo egoera aztertzeko datuak eskutan hartu behar ditugu: eskualdean 400 enplegu suposatzen ditu eta orotara Tolosaldean 19.000 enplegu daude. Pisua du? Beste eskualdeekin konparatuz, bai; eskualde mailako sektore guztiak hartuta, ez. Beste sektore auxiliar batzuk ere badira, papergileentzat lanean aritzen zirenak. Orain papergile horiek ez egotean kaldereria eta metalgintzako lantegi askok dibertsifikatu egin behar izan dute beraien ekoizpena. Garbi dago eskualdeko sektore printzipala ez dela papera. Tolosaldea ez da "comarca papelera". Dagoenari eutsi egin behar zaio noski, baina kontutan hartu behar dugu eskualdeko egitura sektoriala, eta eskualdeko egitura sektorial nagusia metal mekanikoa da egun. Hori da dagoena. Gure kasuan, metal mekanikoak abantailak eta desabantailak ditu: desabantaila da ez daukagula produktu finalik, eta horrek dependentzia eragiten digu; abantaila da flexibilitatea dugula sektore batera edo bestera mugitzeko. Abantaila honetaz jabetu diren enpresak, bista pixka bat izan dutenak,

edo horretarako baliabideak izan dituztenak, egun egoera hobean daude; aurreikuspen hori egin ez dutenak ez daude hain ondo. Bestalde, hazten ari den beste sektore bat energia berriztagarriena da. Ez hemen bakarrik, baina hemen bereziki eman da hazkunde hori azken bost urteetan. Sei enpresa etortzen zaizkit burura, guk daukagun sarerako enpresa indartsuak dira eta hazten ari direnak. Hor daukagu apustu polit bat. Etorkizuneko Tolosaldean zerbitzutara dedikatu behar dugu? Nire iritziz ez. Tolosaldean, zerbitzu sektorean biztanleen %34 ari da lanean. Horrek esan nahi du eskualdea industrial delatolosaldean. Tolosaldean beti egon da tradizio industrial eta hori abantaila handia da, zeren eskualde askok urteak daramatzate tradizio industrial bat sortu nahian eta hori ez da egun batetik bestera sortzen.

### Zein da langabetuaren aurpegia?

**LAB:** Eragina sektore guztietan sufritzen ari dira, baina garbi dago egoerarik prekarioenean zeuden langileak direla lehenik etxera bidali dituztenak. Prekaritatean zeudenak langile gazteak eta emakumeak dira. Hauen aurpegia du langabeziak. Bestalde, ixten ari diren enpresetako langileak 50 urtetik gorako pertsonak dira, eta pertsona hauek izugarriko arazoak dituzte beste lan postu batean hasteko edo formazioa jasotzeko.

**T.G.:** Bat nator. Gizonezkoak baino emakume gehiago doa langabezira, eta tarterik handiena 25-44 urte artekoa den

  
"Tolosaldea ez da "comarca papelera" Eskualdeko egitura sektorial nagusia metal mekanikoa da egun".


**Joxe Luis Urdangarin,  
T.G.**



arren, 2.651 langabetuetatik, 1.000 45 urtetik gorakoa da. **Ondorio bezala zer esan nahi duzue?**

**LAB:** Uste dugu badela garaia Tolosaldeari buruz hitz egiten hasteko, Tolosaldeari buruz erabakiak hartzeko, ez badugu nahi hau basamortu industrial bilakatzea. Gaur egun egoera larria bada, epe motzera askoz ere larriagoa izan daiteke.

**ELA:** Administrazioa ez da patronalaren preso izan behar. Diru eta gastu publikoaren politikak eta zerga politikak aldatu behar dituzte, eta gastu publikoa gehitu. Egoera hau baliatu behar dugu, langileok patronalaren eraso bortitzaren aurka elkartu, borrokatu eta tinko mantentzeko.

**T.G.:** Orain lan egiteko garaia da. Ondo dago erantzunkizunak eskatzea, baina uste dut gizarteari hori baino zerbait gehiago zor diogula. Tolosaldea Garatzenen ditugun baliabideekin eta eskumenekin apustu sendoa egiten ari gara: epe motzera begira, emergentziatzeko zerbitzua sendotu dugu; eta epe luzera begira gaur aurkeztu dugu Apattan sortuko dugun lehiakortasun eta berrikuntzarako zentroa. Apustuak egiteko ordua da. 

  
Garaian garaiko janariak  
eta arraikietan bereziak  
Tel.: 943 671 920  
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

  
ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA  
Foruak, 5-bis • TOLOSA  
Tel.: 943 652 712

  
Beatriz  
Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak  
(bat erositu beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia  
San Martin, 16  
943 425 886-943 420 187

Donostia  
Garbati, 8  
943 420 259-943 430 947

Tolosa  
Rondilla, 11  
943 670 615-943 671 149

  
Arteka  
ESKULANAK  
Nafarroa etorbidea, 10  
TOLOSA  
Tel.: 943 655 577



Maiatzaren 3an hasi eta 9ra arte iraungo du  
Berdintasunaren aldeko I Asteak

# Genero berdintasunaz hausnartu

Tolosako Berdinbide elkarteak antolatuta, Berdintasunaren aldeko I. Astea ospatzen ari da egunotan. Asteko egun bakoitzean ekimenen bat egon da, horietako bakoitzean gizarteko alor ezberdin bat jorratu delarik berdintasunaren ikuspuntutik. Helburua argia da: gizezkoak genero berdintasunari buruz gogoeta egitera bultzatzea.

Erredakzioa

Berdinbide, berdintasunerako eta genero-indarkeriaren kontrako gizezkoen elkarte da. Egun 13 bazkide ditu, baina tarteka taldera hurbiltzen diren lagunak ugari dira. Dagoeneko urte t'erdia igaro da Tolosako gizezko batzuk elkartu eta taldea osatu zutenetik. Denbora horretan maiz bildu dira, berdintasunaz hausnartu dute, baloreetan jantzi dira... "Pentsatu genuen bazela garaia egin dugun lana erakusteko, eta horrela antolatu dugu Berdintasunaren aldeko I. Aste hau", azaldu zuen Antton Bandres Berdinbideko lehendakariak. Lehenengoa dela esaten dute, datozen urteetan ere astearen antolaketan jarraitzeko asmoa daukatelako. "Horretarako jendeak interes minimo bat agertu behar du noski", gaineratu zuen Jesus Mari Penilla elkarteko idazkariak.

gizezkoen ikuspuntutik prestatu dute. Hau da, bereziki gizezkoak gonbidatu nahi dituzte genero-berdintasunaz gogoeta egitera, nahiz eta jardunaldion ateak denentzat zabalik dauden. "Berdintasuna gizezkoen ikuspuntutik begiratu lantzen saiatzen gara, eta egitarau honetan hori islatu nahi izan dugu. Berdintasun eza gizezkoen arazoa dela uste dugu, eta horren aurrean, gizezkoek zer egin behar dugun, zer aldatu behar dugun planteatzea da helburua".


Maiatzaren 3an, astelehenarekin batera Mikel Otxotorena soziologoak eskainitako hitzaldian ederki islatzen zen gizezkoen ikuspuntu hori: "Los hombres por la igualdad" hitzaldian maskulinitatearen eredu berriaz hitz egin zuten.

Asteartean, Hezkuntzaren alorra jorratu zen, "Heziketa berdintasunerako espazioa" hitzaldia- ren bidez. Hizlaria Oier Alvarez izan zen, Emakunderen "Nahiko" programaren dinamizatzailea.

Hautsak harrotu zituen asteazkena hilak 5eko hitzaldia izan zen. Gaia: "Corresponsabilidad de los hombres en el trabajo domestico y de cuidado". Ritxar Bacetek gidatu zuen

## Gizezkoen ikuspuntutik

Gizezkoen elkarteak izatean, Berdintasunaren aldeko aste hau



# artzeko gonbidapena

jardunaldia. Langile soziala eta antropologoa izateaz gain, Gizonduz ekimeneko idazkari teknikoa da. "Badirudi, berdintasunaren aldeko gizonen etxeko lanen banaketa onartu dugula, baina errealitatea da emakumei galdetu eta %90 ez dagoela gus-tura gizonen etxean eskaintzen duten laguntzarekin". Gai honen inguruan eztabaida sortu nahi dute Berdinbideko kideek. "Egungo emakumeek guk bezala kanpoan lan egiten badute, zergatik jarraitzen dute etxeko lanen eta zaitza lanen kargu egiten? Ardura hau asumintuta dutela uste dugu, baina ez luke horrela izan behar". Berdinbideko gizonen argi dute hau ez dela egun batetik bestera aldatzen, baina sentsibilizazioan aurrerapausoak ematen hasi nahi dute, eta helburu horrekin antolatuzuten hitzaldi mamitsu hau.

Maiatzaren 6arekin batera, Kultur Etxeko aretotik Leidor-era lekualdatu da astea. Osteguneko Zine Foruma baliatuz "La costilla


de Adam" film klasikoa eskainiko dute ohiko ordutegietan: 19:15ean eta 21:45ean.

Ostirala, hilak 7 emakumeak lan munduan bizi duen egoera aztertzeko tartea hartuko dute Tolosako Udaleko areto nagusian egingo den mahai inguruan: "Lau ikuspegi ezberdin ekarri nahi izan ditugu: CCOO sindikatutik Felisa Piedra etorriko da, ELAtik Leire Txakartegi, LABetik Oihana Lopetegi eta UGTtik Jose Maria Diez. Moderatzaile lanetan Garbiñe Biurrun arituko da. 20:00etan hasiko da mahai-ingurua.

## Bederatzi zubi berdintasunaren alde

Asteko egitaraua ibilaldi urbano batekin eta jai giroan amaitu nahi dute. "Bederatzi zubi berdintasunaren alde" lemapean txarangaz eta bertsolariz lagunduta Tolosa inguruan dauden bederatzi zubi zeharkatuz ibilaldi errebindikatiboa egingo dute.



Plaza berritik abiatuko da martxa goizeko 11:00etan eta puntu berean amaituko da. Amieran manifestu bat irakurriko dute, non jardunaldietan ateratako ondorioak plazaratuko dituzten. "Familia osoek parte hartzea nahi dugu. Ilusio handiak jarri ditugu aste osoaren antolaketan, baina martxa honek bereziki ilusio-natzen gaitu". Jendea animatuz eta eguraldi ona eskatuz amaitu zuten Berdintasunaren aldeko I astearen aurkezpen ekitaldia. 

  
Korreo, 39 20400 TOLOSA  
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

  
Paper manipulaziorako makina eraikuntza  
Konponketa eta mantenimenduak  
Apatta industrialdea.  
Baratzondo D 26. Ibarra  
Tel.: 943 671 590.  
Faxa: 943 673 916

euskararen semaforoa  
euskararensesemaforoa.blogspot.com

**ZABALA**  
DESGUAZEAK  
KUDEATZAILE BAIMENDUAK  
EU2/111/04  
  
BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA  
TEL./FAXA: 943 671 790 -  
MUGIKORRA: 696 593 347

## Galtzaundi Euskara Taldeak koordinatzaile posturako langilea behar du

Kontuan izango da :

Komunikabideetan eta kudeaketan esperientzia izatea.

Euskalgintzaren ezagutza izatea.

Kurrikuluma [galtzaundi@galtzaundi.com](mailto:galtzaundi@galtzaundi.com)  
helbidera bidali behar da. Epea, maiatzak 14

  
euskara taldea

Eskualdean bertso-eskola asko sortu direla-eta pozik dago Irazustabarrena; baina orain, bertso eskola horien iraunkortasuna bermatu behar dela dio

# Felix Irazustabarrena

“Orain emaitzak jasotzeko unea da”

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko lehendakari postua utzi berria du Felix Irazustabarrena alegiarrak. Hamar urte eman ditu karguan. Ondo eramandako urteak; lehendakari tituluak ez baitio gainzamarik suposatu, eta urte horietan Gipuzkoako Bertsozale elkarteak aurrerapauso handiak egin baititu: kargua hartu zuenean langile bakarra zegoen, egun hamabi lagun ari dira lanaldi osoz jardunean. Gakoa, bertso-larritza hezkuntza arautuan sartzea izan da. Ondo egindako lanak saria merezi du, eta orain emaitzak jasotzeko unea dela dio; hori bai, lan egiteari utzi gabe. Irazustabarrenak idazkari gisa jarraituko du Gipuzkoako Bertsozale elkarteko zuzendaritzan.

Leire Zubeldia



### Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko lehendakaritza utzi berri duzu. Zer dela eta lekuko aldaketa?

Hamar urte bete ditut lehendakartzan. Hasiera batean ez genuen aldaketa egiteko asmorik; lau urtez behin egiten dugu izendapena eta aurten ez zen horrelakorik tokatzen. Baina pentsatu genuen, horrelako karguen aldaketak karguduna nekatuta dagoelako edo arazo bat tarteko dagoenean egiten direla. Oraingo honetan, arrazoi jakinik gabe lekukoa aldatzea erabaki genuen, karguan jartzen den pertsona berriak ikasteko eta trantsizio bat egiteko. Saroi Jauregik esan zuen prest zegoela lehendakari izateko. Nik berriz zuzendaritzan jarraituko dut, idazkari postuan. Orain arte Saroi zegoen idazkari, beraz, postuak trukatuko ditugu.

### Zuk kargua hartu zenuenean langile bakarra zegoen Gipuzkoako Bertsozale elkartearen. Egun hamabi daude lanaldi osoz jardunean. Nola egin duzue batetik dozenarako bidea?

Erantzuna erraza da: hezkuntza arautuko proiektua martxan jarri genuelako. Ni lehendakari hasi nintzenean Aitor Mendiluze aritzen zen lanaldi erdiz; nahiko azkar pasa zen lanaldi osoz aritzera. Orduan jarri genuen martxan hezkuntza arautuaren proiektua. Bertsolaritza eskoletara eramatea zen asmoa. Poliki-poliki hasi ginen, eta orain Gipuzkoa osoko ikastetxeetara iristen gara. Hamar langile hezkuntza arautuan dabilta irakasle, eta hamakagarren batek proiektuaren koordinatzaile lanak egiten ditu. Hamabigarren langilea berriz

elkarteko bestelako koordinazio lanez arduratzen da.

### Hezkuntza arautuaren proiektua transmisio egitasmoaren adar bat da. Azalduiguzu zertan datzan.

Trasmisioaren proiektuak hiru oinarri ditu. Horietako bat da hezkuntza arautua: honen bidez, bertsolaritza eskoletara eraman da jendeak bertsoa ezagutu dezan. Gure proiektua ez da ikasgai bat izatera mugatzen, uste dugu bertsoaren bidez haurrek gauza asko ikasten dutela, eta agian hori izan da arrakastaren gakoa. Gero bertso eskolak daude: eskolaz kanpo, era autonomoan funtzionatzen duten taldeak dira. Oso argi daukagu, oinarri batek bestea elikatzen duela: hezkuntza arautuan bertsolaritza ematen den herrietan bertso eskolak sortzen dira eta bertso eskolak sortzean ikastetxeko bertso jarduna bultzatzen da. Bertso eskolak berak bultzatzen ditu baita ere herri mailan egiten diren bertso emanaldiak. Eta horrela proiektuaren hirugarren oinarri iristen gara, jardunaldi osagarrie dagokienera: herri mailako bertso ekintzak, bertso-eskola eguna, udalekuak, bestelak jardunaldiak eta abar.

### Proiektuak bide dexentea egin du. Bide gehiago geratzen zaio egiteko? Noizbait agortuko da?

Gu lanean ari gara. Oraindik ere zabalteko lekutxo batzuk dauzka, baina asko ez. Herri txiki gutxi batzuk kenduta, Gipuzkoako

udalerrri guztietako ikastetxeetan ari gara lanean, eta zabalpenean ez dugu aurrerapen handirik egingo. Orain emaitzak jasotzeko unea dela iruditzen zait. Gustatuko litzaiguke herri guztietan bertso eskola garatuak izatea; non helduen bertso eskola dagoen, helduen bertso eskola horrek haurren bertso eskola eramango duen, etorkizunean haur horiek helduen bertso eskola bete dezaten eta denek batera herriko bertso dinamika aurrera eraman dezaten. Hori bultzatu nahi dugu. Agortu? Inoiz ez da agortuko.

### Zirkulu horren zein unetan dago Tolosaldea?

Tolosaldea egin dugun prozesuaren adibide garbia da. Orain dela 25 bat urte bazen bertso es-

kola Tolosan, baina geratu zenetik urte luzetan ez da ezer egon. Hezkuntza arautuaren proiektuarekin hasi ginenean Tolosa proiektuan sartu zen. Gero, Alegi, Altzo, Amezketa... Eskualdearen gehienean ari gara lanean. Hortik bertso eskolak sortzen joan dira herri ezberdinetan. Baina sorrerarekin prozesua ez da agortzen. Bertso eskolak badaude, baina iraunkortasuna bermatzen hasi behar dute orain. Nahikoa da bertso eskola bultzatzen duen lagun bat kanpora ikastera joatea eraikita zegoen guztia erortzeko. Alde horretatik oso ahulak dira. Zentzu horretan, Bertsozale Elkartearen lana iraupena ziurtatzea da horrelakorik gerta ez dadin.

### Eskualdeko bertsozaletasunaz balorazio bat egitea eskatuko banizu?

Azken urteetan egituratu gabe egon bada ere, bertsozaletasuna oso goran egon da beti eskualdean. Jaialdi asko egin dira. Tolosan bertan galduta egon ziren, baina berriro piztu dira. Jendeak beti erantzun du. Eragiletza aldetik ere, eskualde honek beti izan du ordezkari zabala. Besteak beste, Gipuzkoako Ber-



tsozale Elkarteko egoitza Tolosan dago. Euskal Herriko Txapelketa Nagusia antolatu denetan berriz, gure eskualdeko jendea egon da antolakuntza taldean, epaile taldean, gai jartzaile taldean... Lizartzarra, altzotarra edo alegiarra izan, beti egon da baten bat.

ematen diogu kolorea programari, baina niretzat, batez ere edukaren baitan dago programa ona edo txarra irtetea: bertso onak dauzkagun astean, publikoak gozatu duen bertso saioa eramaten badugu pantailara, orduan ateratzen zaigu programa ona.

bikainak lortu dira: Txapelketa Nagusiko finalak izugarritzko datuak eman zituen; berdin bertso egunak ere.

### **Ikuslegoak estimatzen du Hitzetik Hortzera. Eta telebista publikoak?**

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko hedapen batzordeak eta Hitzetik Hortzera egiten dugunok egoten gara harremanetan telebista publikoarekin. Orain arte ez dugu arazorik izan. Urtero sinatzen dugu hitzarmena saioa emititzen jarraitzeko. Datorren ikasturteko hitzarmena sinatzeko daukagu oraindik. Programak jarraitzeko borondatea bada goela esan digute oraingoz. Zein baldintzatan izango den hori? Ikusi egin beharko da.

### **Zure garaian erronka askori egin dio aurre Bertsozale Elkartek. Saroi Juaregik gidatutako taldeak zeri egin beharko dio aurre?**

Saroiaren lehenengo erronka erditzea da; oraintxe (elkarrizketa egiteko unean) ospitalean dago. Lan arloari dagokionez, erronka nagusia transmisio proiektuarekin jarraitzea da. Bestalde, 2011ean Gipuzkoako Txapelketa izango da. Dagoeneko hasi gara horretan. Gure asmoa udara baino lehen talde bat osatu eta txapelketa diseinatzen hastea da. Beste ardatza ikerkuntza da. Herrialde bezala ondarea biltzea egokitzen zaigu: plazaz-plazako saioak eta bertsoari buruz munduan lan egin duten eragileen testigantzak grabatzen ari gara orain.

### **Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren inguruan zerbait aurreratu da dakuzue?**

Hemendik udara bitartean lan

taldea sortu eta ekarpen ezberdinak bildu nahi ditugu. Duela lau urte bezala, helburuetariko bat banakako txapelketa ahalik eta onena ateratzea da. Aurrekusten dugu jende askok parte hartuko duela: azken txapelketan jende askok parte hartu zuen, eta oraingoan partaidetza gehiago haziko da. Horri forma eman behar diogu; pentsatu behar dugu zenbateraino luzatu nahi dugun txapelketa. Orain dela hamar urte antolatu zen herri arteko txapelketako helburu batzuk ere berreskuratu nahi ditugu.

### **Bertsozale Elkartea eredu gisa daukagu. Zergatik da eredugarria?**

Egia da jendeak eredu bezala ikusten duela. Pertzeptzio hori nagusitu bada lana ondo egin delako eta kanpora begira egingo dako lan hori ondo islatu delako izan da. Borondatezko lana eta lan profesionala uztartzen jakin dugu; berdin sortzaileen eta zaleen lanarekin ere. Gero, zortea daukagu, bertso eskoletatik pasa diren eta pasatzen ari diren bertsolariak oso sortzaileak direlako, lanerako gogo izugarria dutelako, eta jakin dugulako guzti hori taldera ekartzen. Borondatezko lan asko egiten da elkarteetan, eta egiten dena balio handikoa da gainera.

### **Kargua utzita zer aldatuko da zure bizitzan?**

Teknikoki, bilera bat gutxiago izango dut, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteara. Hortik aurrera ez da gehiagi aldatuko. Karguaren izenaren pisua kenduko dut, baina lehen ere ez nuen pisurik sentitzen.



“Azken urteetan egituratu gabe egon bada ere, bertsozaleetasuna oso goran egon da beti eskualdean.”

Eragiletza aldetik oso emankorra izan da eskualdea. Orokorrean? Zaleetasuna beti egon da.

**Gaiez aldatuta, Hitzetik Hortzera programan ere ikusten zaitugu: formatuz aldatu duzue, hizlari bat baino gehiago sartzen zarete eszenan... Nolako programa egin nahi duzue?**

Beti probatu izan dugu gauza berriak egiten. Garbi daukagu, formatoa gero eta arinagoa egiten saiatu beharko genukeela. Hitzetik Hortzera egiten dugun guztiok

### **Programak sharean dituen emaitzen berri ba al duzue?**

Ikasturte honetan konplikatu da hori: programa ETB 3an emititzen hasi dira; gero ETB1ean laburpena botatzen dute, ETBsat -en ere bai... Oso dispersatuta dago, eta ez dakit datuak ondo kontrolatzen dituzten ere. Guri urte bukaeran ematen dizkigute datuak. Hala ere, guk ez diogu jaramon handiegirik egiten. Dena den, datu onak lortzen ditugula esan izan digute. Esate baterako, saio jakin batzuekin emaitza



**Amaia Etxetxipia**  
Nutrizio aholkularia

Udaberriaren inguruan, ohikoa izaten da pertsona asko bere elikadura zaintzen has-tea urtean zehar hartzen joan garen kilotxo horiek galdu ahal izateko. Normalki, berokiak kentzearekin batera, hondartza eta igerile-kuetara joateko egunak hurbiltzean, gure gorputza zaintzeko motibazioa handitu egi-ten da. Egunak gero eta luzeagoak dira, argi-tsuagoak, eta egoera honek gure aldar-tean eta umorean eragiten duenez, oso lagungar-ria izaten da.

## Koxk!

# Ezkutuko gantz hori

Gure elikadura ohiturak aldatzeko, borondateaz gain, zaintzeko animoz eta gogotsu egotea beharrezkoa da. Badakigu zein garrantzizkoa den elikadura ohitura egokiak lortzea, ez bakarrik gehiegizko kilo horiek galtzeko, baizik eta gero mantendu ahal izateko, eta kontutan izanik denoski, egun batetik besterako irtenbide magikorik ez dugula aurkituko.

Baina motibazio bezela lagunduko digun beste zer-bait ere gehitu dezakegu, eta hau gure osasuna da. Eta zer da osasuna? Ba osasuna ez da bakarrik gaixotasun eza, baizik eta ongizate fisiko, psikiko eta soziala da, funtzionamendurako ahalmen normalarekin (esfurtzurik gabe). Horretarako elikadura osasuntsua izatea oso garrantzizkoa da, gehiegizko pisua ez izan arren. Gure azalaren azpian kokatzen da gehiegizko gantz hori, bai-na baita ere garrantzi handia

duten gorputzeko organoen inguruan, eta hau arriskutsua-goia da osasunarentzat.

Ikerketa desberdinetan, zenbait pertsona argaletan ere (hau da, azal azpian gantz gutxi dutenetan) aurkitu dituzte gantz kopuru altuak organu batzuen inguruan (adibidez, gibela, bihotza edo gihar-zuntzen artean). Gehiegizko gantz mota honek, zenbait gaixotasun sortzeko arriskua handitzen omen du (adibidez, hipertentsioa). Ikerketa hauek azaltzen dutenez, erraien inguruan kokatzen den gantz mota honek, zenbait mezu kimiko bidaltzen ditu, hantura (inflamazioa) sortaraziz; honen ondorioz, beste patologia batzuen artean, aurkitu daitezke insulinarekiko erresistentzia, diabetesa eta gaixotasun kardiobaskularrak. Aditu hauek egiaztatu ahal izan dute, kasu hauen jatorria, bizitzeko modu toxikoak direla (hau da, dieta ez-orekatuak eta aktibitate fisi-

ko gutxi). Emakumeetan gantz gehiena izter eta aldaken inguruan kokatzen da eta gizonen kasuan, tripa inguruan. Jakina da ere, gantz hori aldaken inguruan kokatzen denean, lehen aipatu ditugun gaixotasunak sortzeko arriskua txikiagoa dela, erraien edo tripen inguruan kokatzen denean baino.

Aktibitate eza eta dieta desegokiaz gain, (hau da, irin zuri, azukre, trans-koipe eta koipe saturatu eta aditibo artifizial ugari daramatzen dieta) badirudi gure geneak gantz horren kokapenean ere zerikusia dutela.

Nola saihestu egoera hau? Ezin ditugu gure geneak aldatu, baina bai gure dieta eta bizitzeko modua. Neurri hauek lagungarri izan daitezke:

- Aktibitate fisikoa igo; masa muskularra handitzen duten ariketak ere onak dira, izan ere, gihar gehiago izatean metabolismoa eraginkorragoa

da eta tripa inguruko gantz hori eratzeko arriskua txikiagoa izango da.

- Pisu egokia lortu, dieta osasuntsu eta orekatu baten bitartez, kontutan izanik denok ez ditugula ezaugarri berdinak.

- Ekidin pisuaren gorabehera handiak.

- Irin zuri eta azukrearen ordez, lekaleak, zereal integralak, barazkiak eta fruituak gehiago jan.

- Arrain urdinak eta fruitu lehorrek, omega-3 gantz-azidoak kantitate altuan dituzte eta hauek hantura ekiditeko egokiak dira.

- Koipe egokiak jan, trans eta gantz-saturatuak alde batera utziaz.

- Eta loaren erritmo egokiak lortzeko gai bagera ere, bikain!

des

2010ean Tolosako artisten erakusketak izango dira nagusi GKO Galleryn. Maiatzaren 9ra arte Mikel Telleriaren proposamen interaktiboak hartuko du espazioa

## Kale Nagusiak 100 m<sup>2</sup> ge

20

GKO, Urban art sphere (arte urbanoaren esfera) irakurri daiteke Kale Nagusiko 4. zenbakiaren atarian.

Horrela izendatu zuten Garikoitz Murua, Camilo Rodríguez, Gabriel Maeztu eta Kimetz Martinezek 2008an zabaldu zuten espazioa. Beraiek kaletik datozen artistak dira, eta barruan ere kalean bezala sentitu nahi zuten: araurik gabe, askatasun osoz jarduteko aukerarekin. Kaleari 100 metro karratu irabazi dizkiotela diote, eta espazio hori asfaltoan lan egiten zuten artistei eskaintzeko asmoarekin hasi ziren lanean. Horrelako espazioen beharraren eraginez ordea, proiektua zabaltzen joan da, eta kalean ez ezik estudioan edozein lan mota egiten aritzen direnei ere eskaini dizkiete galeriako giltzak. 2010eko programazioan Tolosako artistak dira protagonista.

### Erredakzioa

Ormigoizko paretak, adreilu arrastoak, grisa. Zinez kalean sentitzen zara GKO Galleryn. Elkarrizketa egiteko unean espazioa erabat hutsik zegoen: "Mikel Telleriak bere erakusketa atondu behar du bihar, eta es-

pazioa erabat hustuta nahi zuela esan zigun. Ez dakit zer egin nahi duen, baina gu artistaren desioetara makurtzen gara. Gauerdian giltzak emango dizkiogu eta maiatzaren 9ra arte berea da GKO", azaldu zuen Ga-

rikoitz Muruak. Gero, Telleriak GKOko ataria tapiatu zuen.

Camilo Rodríguezekin batera, Kale Nagusiko arte galeria kudeatzen du Garikoitzek. Egitasmoa martxan jartzerakoan beraiek batera aritu ziren Gabriel Maeztu eta Kimetz Martinez. Egun ez daude bakarrik, laguntzaile ugari dituzte: "gero eta kolaboratzaile sare zabalagoa daukagu. Artista batzuk beraiek erakusketa jartzeaz gain, lan puntual batzuk eginez egitasmoa aurrera eramaten lagundu nahi izaten dute. Era honetan, Ibai Luke, Haritz Murua, Vanessa Ortega, Jose Manuel Padilla, Kikara Tabernako kideak eta beste hainbat lagun sartu dira dinamika honetan". 2008an gogo handiarekin baina hutsune askorekin ekin zioten bideari. Kolaboratzaile hauek proiektuaren gabeziak betez joan dira: "Kartelak word-ean egiten nituen hasieran, orain diseinuzko kartel landuak ditugu, diseinatzaile frantziar batek eginak". Denen artean proiektu sendoa egin dute. "Eta

S

# ehiago ditu



hau ez da irabazi asmorik gabeko elkarte bat; enpresa bat da, entitate pribatu bat”, dio Garikoitzek, “baina artistei askatasun guztia ematen diegu”. Hor gakoa.

## 2010ean Tolosako artistak protagonista

GKO Gallery-ko arauak kalerako arau berak dira: askatasun osoa artistarentzat. Hori bai, ikasturte bakoitzean ildo editorial moduko bat finkatzen dute, eta honen arabera antolatzen da programazioa. 2010ekoa martxoan itxi zuten. “Gu graffitian zentratuta hasi ginen lanean. Hainbat graffitero etorri ziren ireki eta lehenengo sei hilabetekoan. Gerora, espazioak erakarrira jendea galeriara hurbiltzen hasi zen erakusketa bat jarri nahi zutela eskatuz. Tolosan behar bat zegoela ohartu ginen, eta gure planteamendua aldatu genuen behar hori asetze aldera”. Era honetan, 2010ean Tolosako artisten lanak proiektatzeko helburua jarri zuten. Dagoeneko

Miren Gonzalez, Eli Garmendia edota Mikel Telleriak jarri dituzte euren erakusketak galerian; urtea amaitzerako beste hainbat artista tolosar igaroko dira GKOtik, Igor Obeso eta Nagore Amenabarro beste batzuen artean.

Muruaren hitzetan artista guzti hauek oso lan onak egiten dituzte, baina ez ditugu ezagutzen. “Eli Garmendia esaterako oso argazkilari ona da. Bartzelonan ikasi zuen eta bertan bizi da egun. Jendeak ez zekien zer lan mota egiten duen ere, inoiz ez baitu bere lana herrian erakusteko aukerarik izan”. Honen erruduna instituzioak direla uste dute GKO: “artistok ez daude ezkutuan; nahi baduzu kanpoan bizi direla esan dezakegu, baina hor daude, eta ez ditugu ekartzen”. Artista tolosar asko halaber behar bizi dira herritik kanpo euren lana proiektatzeko aukera gehiago dituzten hirietan. Alde horretatik, Kale Nagusiko galeria zabaltzeak artistok Tolosarekin duten lokarria sendotzea ekarri

duela ohartarazi dute: “artista tolosar batek esana da, gu hemen gaudenetik Tolosak asko irabazi duela, hemen bere lana ulertzen dugulako”.

2011ko lan ildoak finkatuta dute dagoeneko. Aurtengoaren alderantzizkoa izango da, eta kanpoko artistak ekarriko dituzte Tolosara.

## Kaletik barrura eta barrutik kalera

Zerk egiten du erakargarri espazioa? Beste galerien aldean GKO on askatasun osoz jokatzeko dutela, eta ohiko erakustokien zirkuitua oso saturatuta dagoela. Bestalde, areto hauek leku hilak izaten dira askotan, bizitasunik gabekoak. GKO on argi daukate ez dutela arrisku horretan erori behar, eta horretarako erakusketa jartzen duten artistei interaktibitatea eskatzen diete. “Gu kanpotik barrura etorri gara, baina era berean kanpoan jarraitu behar dugula kontziente gara. Artistei beraien erakusketak jendearekin lotura bat izan dezaten eskatzen diegu,

kanpora begira zerbait eskaintzea”. Horrela, Miren Gonzalezek trukearen proposamena egin zuen, eta Mikel Telleriak jendearengan eragin zuen ataria adreiluz estali eta arteari buruzko mahai-inguru zein eztabaidak antolatzean.

Jendea ere hasi da pixkanaka Gallery-ra hurbiltzen. “Zaila egin zaigu herritarrek erakartzea, jendea ez baitago ohituta komertzio batera kuriositate hutsagatik sartzerara. Baina gero eta jende gehiagok daki hemen erakusketak egiten direla; mantso-mantso baina badatoz”. Askotan herrian arrotza dena ezaguna izaten da kanpoan, eta hori gertatu zaio galeria honi. “Atzerriko artisten artean proiektzio dextentea lortu du egitasmoak, eta turista mordo pasatzen da hemendik hau ikustera. Denak harrিতa geratzen dira, Tolosa bezalako herri batean mugimendu hau sortzea nola lordu dugun galdezka”. Zu ere kuku bat egitera gonbidatu zaituzte.

# Itxaso Leunda

# Euskal Herriko duatloi txapela

Argia diogu Zornotzan Euskal Herriko txapelketa irabazteaz gain parte hartu duen proba guztietan garaile izan delako: lautik lau irabazi ditu Itxaso Leundak. Iaz txirrindularitzari eskaini zion urte guztia eta zalantzak zituen duatloi-triatloian nola moldatuko zen. Onezkero uxatu ditu zalantza guztiak.

EHko zirkuituan dena irabazi ondoren, pauso bat harago eman nahi du: maiatzaren 15ean Tarragonan jokatuko den distantzia luzeko triatloian jarriko du frogan bere burua.

Erredakzioa

**Lehenik eta behin zorionak! Euskal Herriko duatloi txapelketa irabazita, nola sentitzen zara?**

Oso pozik. Ez zen nire hasierako helburua, baina txapela janztea lortu dut eta oso gustura nago.

**Nola joan zen proba?**

Korrika egin beharreko 10km-ak burutzen bigarrena izan nintzen, baina lehenengoarengandik oso gertu. Bizikletan alde atera nion, 7 minutukoa. Korrika beste 5 km egin eta 6 minutu t'erdiko tartearekin irabazi nuen.

Beldur pixka batekin ekin nion probari. Aurreko asteburuan triatloi bat egitetik nentorren eta ondo errekupeatu gabe ote nengoen sentsazioa nuen. Hasieran kosta egin zitzaidan erritmoa hartzea, baina gero nire buruarengan konfidantza berreskuratu eta aurrera egin nuen. Zornotzan prestatu zuten proba bera ere oso polita zen, paraje ederretatik

pasa ginen, eta horrek ere laguntzen du.

**Iazko urtea erabat bizikletari emanda pasa zenuen. Duatloira bueltatzeko beharra al zenuen?**

Eguneroko bizitzak behartu nau erabakia hartzera. Lanean hasi nintzen eta orain ez daukat bizikletak eskatzen duen adina entrenatzeko denborarik. Eguneroko tarte txiki bat daukat horretarako, eta ahalik eta zuku gehien ateratzen saiatzen naiz: korrika, igeri edo bizikleta egiten dut eguneroko. Orain, eguna luzatu denean bizikletan aritzeko aukera gehiago izaten da, eta ahal dudanean ateratzen naiz kilometro batzuk egitera. Bestalde gogoa era baren duatloi eta triatloi mundura itzultzeko. Gehiago gustatzen zait hemen sortzen den giroa.

**Hala ere Debabarrena taldean jarraituko duzu...**



Bi lasterketetan parte hartu dut dagoeneko. Pentsatzen dut udaran lasterketa gehiagotan aterako naizela, baina oporrak iritsi arte ezin dut serio entrenatu.

**Duatloia, triatloia eta txirrindularitza... Hiruetan moldatzeko nola antolatu duzu urteko egutegia?**

Duatloi denboraldia amaitu da jada. Triatloian nire egutegi propioa egingo dut; bizikletan aldiz ez dut egutegirik. Inprobisatu egingo dut, une bakoitzean ditudan posibilitateen arabera egingo ditut probak. Lehen azaldu dudak bezala, gehien bat nire egoerak bultzatu nau antolaketa honetara: ilundu eta gero igeri egin dezaket, baina ezin naiz bizikletan ibili. Bizikleta bigarren maila batean utziko dut aurten.

**Iaz bizikletari emanda ibili, duatloira itzuli eta dena irabazi duzu. Horrela ibiltzerik espero zenuen?**

Ezusteko izugarria izan da. Urte bete pasa dut korrika egin gabe eta ez nekien nire gorputzak nola errekupeatu zuten. Fuerte itzuli naiz. Lau probatik lauak irabazi ditut. Egia da gogor entrenatu dudala, eta iaz

ere gogor egin niola nire buruari. Pixkanaka, gorputza egiten doa. Baina ez nuen inondik inora uste horrela ibiliko nintzenik. Oñatira duatloia bukatzeko helburuarekin joan nintzen, eta begira!

**Hirutik hiru eta Euskal Herriko Txapelketa: ez da marka makala. Euskal Herriko zirkuituko mailatik gora al zaude?**

Eliteko triatloiarik ez dira zirkuituan ibiltzen, baina egia da irabazi ditudan probak erraz irabazi ditudala, batezbeste bigarren sailkatuari 6 minutuko aldeak ateraz. Apirila amaieran Gironan izan nintzen estatu mailako triatloi batean eta laugarren helmugaratu nintzen; horrek adierazten du nahiko maila onean nabilela.

**Non dago maila horren gakoa?**

Korrika asko hobetu dut, eta iazko urtea bizikletaren gainean pasa nuen. Normalean korrika lehiakideak ni baino gehiago dira, baina hobetu dudanarekin alde gutxiago ateratzen didate; gero, bizikletan alde hori berdintzea lortzen dut. Bizikletan dago klabea.

# peldun argia

## Zein distantziatako duatloiak egin dituzu?

Sprint-ak, motzak eta luzeak daude. Sprint-ak alde batera utzita distantzia motzekoak egiten ari naiz aurten, egutegiaren alde-tik ondo egokitu zaizkidalako eta ironmana egiteko prestatzen ari naizelako. Entrenamenduak ere distantzia luzeari begira egiten ari naiz.

## Gironara ere Ironmana prestatzeko joan al zara?

Bai. Aspalditik genuen hara joatea aurreikusita. Ironman erdia da eta egokia iruditu zitzaizgun sentsazioak ikusteko. Distantzia horretan ateratzen nintzen lehenengo aldia zen: indarrak gordez egin nuen proba guztia, makalaldi batean erortzeko beldurrez. Ondo iritsi nintzenean pena sentitu nuen, gehiago egin nezakeen sentsazioarekin geratu nintzelako. Beste alde batetik hori ona da: indartsu ikusi nintzen.

## Maiatzaren 15ean egin behar duzun distantzia luzeko Ironcat L'ampolla triatloian ordea lan bi-koitza izango duzu. Nola ikusten zara?

Salto handia ikusten dut ironman erditik ironmanera. Alde horretatik errespetua ematen

dit. Atera, proba amaitzen saiatu eta gozatzeko helburuarekin goaz. TTTtik hiru kide joango gara: Aitor Regillaga, Asier Saez eta ni.

## Triatloilari batek ezin du bere kirol ibilbidea amaitu distantzia luzea probatu gabe?

Nire asmoa ez zen aurten distantzia luzea probatzea, baina gauzak horrela gertatu dira: abenduan Donostiako maratoia egin genuen eta momentu ona iruditzen zitzaidan distantzia luzeari eusteko. Asier Saezek komentatu zidan Tarragonan egiten zen Ironcat-a distantzia luzeko proga umila zela, egokia Ironman erditik Ironmaneko distantzietara salto egiteko. Tentatu egin ninduen eta azkenean animatu egin nintzen.

## Triatloi denboraldiari begira, ze helburu duzu?

Ironmana eta Zarautzeko Ironman erdia ditut begiz jota. Zirkuituaren baitan antolatzen diren triatloietan atera edo ez gorputzaldiaren arabera erabakiko dut. Ondo sentitzen banaiz zirkuituko probak egin eta azken sailkapenerako puntuak pilatzen saiatuko naiz. Duatloi zirkuituan soilik hiru proba egin ditut, eta ezin izan dut puntuatu.

## Zarauzko triatloian parte hartzen duzun lehenengo aldia izango da hau. Badu zerbait berezia euskal triatloilariarentzat ezta?

Zarautz erronka bat da euskal triatloilariarentzat. Paraje politetatik egiten da eta giro ederra sortzen da bere inguruan. Iaz inskribitzeko asmotan egon nintzen, baina distantziak inponitu egiten zidan eta atzera egin nuen. Aurten Nazioarteko zirkuitu batean sartu da triatloia. Horrek izen ematea garestitu du, eta nazioarteko triatloilari onenak erakarri. Alde horretatik ez da berdina izango: lehen oso herrikoia eta euskalduna zen, orain arrotzago egingo zaigu.


## Aurrera begira non ikusten duzu zure burua: duatloi-triatloian edo txirindularitzan?

Duatloi-triatloian. Gehien bat giroagatik. Eliteko txirindularitzan oso giro lehiakorra dago. Nabarmenezko aukera gutxi egoten da, eta borroka horretan tentsio handia sortu ohi da. Dena edo ezer ez da txirindularitza. Triatloian giroa askoz ere sanoagoa da. Gehien bat, elite eta maila herrikoian ibiltzen diren triatloilariarentzat zirkuitu ezberdinak daudelako.

**ZETA**<sub>SI</sub>

**MUNTAKETA ELEKTRIKOAK**

Usabal z/g - 23. postakutxa  
20400 TOLOSA  
Tel.: 943 672 728  
Faxa: 943 673 219



**ARTE TAILERRA**

**HAURRAK ETA HELDUAK**

Sormen lana: marrazketa, margoak, eskultura.  
Tolosa - Kale Nagusia, 16  
Tlf. 677 340 685

Gozotegia

Okindegia

**ECEIZA**

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



**galtzaundi**

Jarri publikizitatea

**Galtzaundi aldizkarian**

Nafarroa etorbidea, 6. 20400 Tolosa  
Tel. 943 655 004  
publizitatea@galtzaundi.com  
www.galtzaundi.com

## irakurri entzun Ikusi

### Aurpegirik gabeko hiltzaileak

Henning Mankell

Kurt Wallander ez da ari bere bizitzako unerik gozoena pasatzen: familia harremanak gaiztotu egin zaizkio, gehiegi edaten du... Hala eta guztiz ere, Lenarp aitona-amona baserritarren hilketaren ikerketa bere gain hartzen du. Agurea modurik baldarrenean izan da torturatua

hil arte; amona, berriz, arnasarik gabe uzteraino estrangulatu dute; azken hatsa bota baino lehen, ordea, "kanpotarra" hitza ezpaineratu zaio. du.

### Grandes exitos de ayer

The Sparteens

Bukatu dute jada 2008. urtean hasi zuten "Grandes Éxitos del Ayer" izeneko single bilduma osatzarekin. Banaka hilabetero abesti klasiko birmoldaketak kaleratuz aurtengo maiatzean iritsi dira hamargarren single-a aurkeztera. Hizkuntza ezberdinetako abesti ezagunak euren berezko estiloaz blaiturik 60.hamarkadako guatekeetara garamatzate iparraldeko musikariek. Laster hamar single-ak lan bakarrean aurkeztuko omen dituzte gainera.

### 80 egunean

Jon Garaño, Joxe Mari Goenaga

Axun eta Maite lagun minak izan ziren txikitak. Senitarteko bat zaitzen ari direla egiten dute topo hospitalean. Txikitako harremana berreskuratuko dute, eta hori baino zerbait gehiago ere bai: elkarren arteko kimika. Maite lesbiana da eta naturaltasunez bizi du bere kondizio sexuala; Axun aspaldi ezkondu zen eta baserrian bizi da bere senarrarekin, baina zerbait sentitzen du Maiterekiko. Zera jarraitu, burua edo bihotza? Drama zoragarria, ukitu umoretsu bikainekin, eta euskara jatorrean egina!

# maiatzaren 7tik 21era arteko hitzorduak

## Erakusketa

Aranburu jauregia


- Ekainaren 12ra: Nisa Goibururen "Y aun asi, somos naturales" erakusketa.

- Ekainaren 12ra arte: Adolfo Tannenbaum-en argazki erakusketa.



GKO Gallery

- Maiatzaren 7tik ekainaren 13ra: "Carnet de voyage vuelta de Chile" erakusketa



TOPIC

- Maiatza amaierara arte: Txinako Txotxongiloetako pertsonaia tradizionalak.

## Zinema

Leidor

- Maiatzak 8: "Flor del desierto" 19:30ean. "El escritor" 22:30ean.

- Maiatzak 9: "Los niños de timpelbach" haurrentzako filma 17:00etan. "Kimuak 2009 film laburrak 18:00etan. "El escritor" 19:30ean eta 22:00etan.



- Maiatzak 10: "Flor del desierto" 20:30ean.

## Ikuskizunak

TOPIC

- Maiatzak 15: "Toutouie, una aventura submarina" lana Teatrophique taldearen eskutik 18:00etan.

- Maiatzak 21: "Euskarazetamol"

Ez dok Hiru bikoteatroaren antzezlan 20:30ean.



## Musika

Leidor

- Maiatzak 7: Nacho Vegas-en kontzertua 21:00etan.

TOPIC

- Maiatzak 18: Basque Irish Connection kontzertua 20:00etan.

Fronton kafetegia

- Maiatzak 14: Natural Project -en kontzertua 23:00etan.

Bonberenea

- 7 ostirala.U.K. Bill eta Plan B. 22.30h.



# Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionaturako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
CAD 3D modelatu eta planoak (Solid Works)	2010/05/10	30
GPS ikastaroa	2010/05/10	10
CNC sarpen bidezko elektro-higaduraren prestaketa eta programazioa	2010/05/11	30
Sendabelarrak	2010/05/12	8
Internet + e-administrazio ikastaroa	2010/05/17	20
GIMP I eta II	2010/05/18	8

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia  
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA  
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Telefona: 943.65.11.47 edo 615.775.678  
Posta-e: [info@ikastn.com](mailto:info@ikastn.com)  
Webgunea: [www.ikastn.com](http://www.ikastn.com)

- 8 larunbata. Skaff-Links (Japonia) eta Emon. 22.30h.
- 14 ostirala. Cordura eta Bugatti. 22.30h.
- 15 larunbata. The Sparteens. 22.30h.



## Txapin festa

- Maitzak 15: Gazte talde, lokal, kuadrila eta aisialdi taldeen arteko festa.

## Saharari buruzko jardunaldiak

Tolosako kultur etxea

- Maiatzak 13tik 21era: Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatutako erakusketa eta hitzaldi sorta.

## Goardiako farmaziak

### Ostirala, 7

Santamaria I.  
(Nafarroa etorb.2)  
Tolosa

### Larunbata, 8

Ugarte M<sup>a</sup>T.  
Euskal Herria, 46  
Ibarra

### Igandea, 9

Echeveste Jesus M.  
(Gernikako arbola, 3)  
Tolosa

### Astelehena, 10

Azpiroz L.  
Amaroz 9  
Tolosa

### Asteartea, 11

Bronte C.  
(korreo kalea 20)  
Tolosa

### Asteazkena, 12

Olarreaga M.  
(Martin J. Iraola, 10)  
Tolosa

### Osteguna, 13

Morant R.  
(Zabalarreta, 1)  
Tolosa

### Ostirala, 14

Tolosa M<sup>a</sup> Isabel  
(Nagusia, 7)  
Tolosa

### Larunbata, 15

Santamaria I.  
(Nafarroa etorb.2)  
Tolosa

### Igandea, 16

Iturrioz I.  
(Euskal Herria, 3)  
Ibarra

### Astelehena, 17

Olarreaga J.  
(Korreo kalea, 2)  
Tolosa

### Asteartea, 18

Ugarte M<sup>a</sup>T.  
Euskal Herria, 46  
Ibarra

### Asteazkena, 19

Echeveste Jesus M.  
(Gernikako arbola, 3)  
Tolosa

### Osteguna, 20

Bronte C.  
(korreo kalea 20)  
Tolosa

### Ostirala, 21

Azpiroz L.  
Amaroz 9  
Tolosa

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdia)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	(asteazk.)	639 352 156
Berastegi-Elduain	Ur zerbitzuak (aberiak)	943 670 325
Medikua	Iurreamendi egoitza	112
Bidegoian	Larrialdia, Suhiltzaileak	943 672 536
Medikua	DYA	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	Gurutze Gorria	943 651 425
Osasun etxea		943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

Nafarroa etorbidea, 13-behea  
20400 Tolosa  
Mobila: 670 417 922  
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA  
**ZUEN  
TZART**  
*eskuz esku  
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA  
[ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET](mailto:ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET)  
TEL. 943 650 359

**TINDATEGIA**

Laskorain kalea • TOLOSA  
Tel.: 943 652 618

**ARALAR  
KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA  
Tel.: 943 654 916

# Muxutruk

## lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratu dituz, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644.453.621

• Ingeleseko klaseak ematen dira, barka edo taldean, maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.160.268

## Etxebizitza

• Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645.718.536

• 60m<sup>2</sup>-ko pisua salgai Berazubín. Egon-gela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616.278.843

• "Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125"

• Etxebizitza abuhardilatua salgai Montezkue auzoan. Bi logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa badu. Eguzkitua eta bista onak. 685.765.855

## Salgai

• Spaniel txakur kumea salgai 678.923.512

• Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605.717.858

• Igini markako akordeoia saltzen da. Tamainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxo opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

# Horoskopoa

Maiatzaren 7tik 21era arteko aurreikuspena



## aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Ez du denbora askorik izango zuri eskaintzeko. Ulerkor jokatu behar duzu, eta elkarrekin igarotzen duzuen denborari zukua atera. Ariketa fisiko pixka batek animoa altxako dizu.



## taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Kontzientziako karga iraganean egindako zerbeitengatik. Zama arintzeko minaren iturrira jo eta gauzak argitzea bezalakorik ez dago. Zuk alderantziz egiten duzu: iraganari ihes egin ahatuko duzulakoan.



## gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Zuk bakarrik ez, besteek ere eder ikusten dute. Jarraitzaile asko izango ditu inguruan festa hauetan. Utikan ieloskorkeria horiek, berarentzat ederrena zu zara eta!



## cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Lan karga dela eta ez zabilta fin elikadura kontuetan. Garrantzitsua da eguneko otorduak ondo eta lasai egitea. Utzikeria honek arazoak ekarriko dizkizu bestela.



## leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Albiste batek hankazgora jarriko du zure eguneroko jarduna. Familia arlotik etor daiteke. Gainontzean aste zogarriak datoz zuretzat. Bolada ona arlo guztietan.



## virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Ez hartu konpromisorik bete ezin baduzu, gero frustrazioak etortzen dira eta! Bazkari, afari eta oturdu pisutsu ugari izango dituzu hurrengo asteburuetan. Astean zehar zaindu zaitez.



## libra

Irailak 23-Urriak 22

Egun onak lagun artean igarotzeko. Barre algarak, umore ona eta konplizitatea egongo da zuen artean. Giro egokia zenbait harreman-lokarri sendotzeko.



## scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Begiratu ongi errenta aitorenaren autolikidazio proposamena. Akatsen bat egon liteke. Egin gauza bera seguru erreziro, telefonoko faktura eta bestelakoekin. Askotan behar baino gehiago ordaintzen duzu.



## sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Harremana hoztuko da gaizkiulertu baten ondorioz. Hitz egin, gauzak argitu eta errekonziliazioak ahatu araziko dizue dena. Hezurretaraino maiteminduko zaitu.



## capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Zuri ez dagozkizun lan askotxo egiten dituzu aspaldian. Ez dira zure bete-beharrak, beraz hortik has zaitezke aspaldian daukazun lan eskerga arintzen. Matxurak etxean.



## aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Aspaldian itzalita zegoen desioaren garra piztuko da zuen artean, eta nola gainera! Arrazoiak? Udaberria eta eguraldi ona izan daitezke. Gar horrek indarra emango dizu beste bizitzako arloetan ere.



## piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Belarritik belarrira irribarrea daramazu egun osoan. Inguruak konturatu dira zerbaitek, norbaitek, poza eragiten dizula. Eutsi sekretuari. Ezkutuan ibiltzeak halako morboa ematen dio zuenari.



Bete-betean  
asmatzeko  
biderik onena!!



Berrikuntza ardatz duten  
Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

**Aurrematrikula epea  
zabalik**

Goierri  
eskola

2 GELAKO ETXEBIZITZAK, TERRAZA ETA TRASTELEKUARENKIN...

186.000€

EUROTİK HASITA.

ANOETAN

Batoz auzo  
etxera!



Ezin hobe komunikatutako bizigunea, hirigune, ikastola eta kiroldegitik hurbil. Berdegune, plaza eta parkeez inguratua.

LOATZOPE ANOETA

- ikuspegi argitsuak eta terrazak zabalak, etxebizitza guztietan
- Kalitate bikaineko materialak
- Sukalde erabat hornitua
- 2 eta 3 gelako etxebizitza egokitsuek

MVL . 654 23 75 27  
MVL . 650 44 21 57  
Tf: 743 31 66 11  
comercial@grupoeibar.com  
www.grupoeibar.com



irudi berrituak. loturapenak gabeko irudiak